LEA IBARREKO UDAL MANKOMUNAZGOA

Eleizaldea, 1 - 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia).
Tfnoa. eta Faxa: 94 684 29 82 Web:www.leaibarra.com

LEA IBARREKO MANKOMUNAZGOKO ARRETA ETA ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALEKO ZERBITZUEN KONTRATUA ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. SARRERA

1.1. Marko legegilea

1.1.1. Abenduaren 5eko, 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa

Helburua da "Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatzea eta bermatzea, izaera unibertsaleko gizarte-zerbitzuen euskal sistema bat arautu eta antolatuz". Eta 3., 5., 22., 23., 24., 25., 27. eta 42. artikuluetan honela dio:

- Eskubidearen titulartasuna mugatzen du.

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, arreta sare publiko artikulatu gisa eratzen da, erantzukizun publikokoa; helburua pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzea, autonomia eta gizarte ongizatea bultzatzea da, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-eginkizuna garatuz, pertsonalak eta harremanetakoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez.

- Hurbiltasun eta arreta pertsonalizatuaren, printzipio integral eta jarraitutasunaren printzipioak, besteak beste; Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema inspiratzen dute, pertsonei beren ohiko ingurunean arreta emateko aukera emanez eta esku-hartzearen ikuspegi komunitarioan zentratuz.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoan sartutako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak ezartzen ditu, eta horien artean dago esku-hartze psikosoziala.

- Prestazio eta Zerbitzuen zorroa egiteari eta eguneratzeari buruzko zenbait alderdi ezartzen ditu.

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema antolatu eta egituratzen du.

Aipatutako 12/2008 Legearen 22 artikuluak, lehen mailako arretako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoaren barne sartzen du esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko zerbitzua, eta 27 artikuluan zehaztutakoaren arabera udalei esleitzen dio horiek betetzeko eskumena.

Eta udalei dagokie, udaleko Gizarte Zerbitzuen bidez, beren lurralde-eremuan bertan esleitutako eskumenak gauzatzeko erantzukizuna.

1.1.2. Urriaren 6ko, 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen Zorroari buruzkoa.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22 artikulua arautu eta garatzea du helburu; 23 artikulua eta lehenengo xedapen gehigarria betez.

Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren helburua Gizarte Zerbitzuen legearen 2 artikuluan aitortutako eskubide subjektiboari edukia ematea eta mugatzean da; eta horien erabilera,

LEA IBARREKO UDAL
MANKOMUNAZGOA

Eleizaldea, 1 - 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia).
Tfnoa. eta Faxa: 94 684 29 82 Web:www.leaibarra.com

egitura eta deskribapena Gizarte Zerbitzuen legearen 23 artikuluan arautzen da, honako hauen bidez:

- Nahitaez bete behar diren prestazio ekonomiko eta zerbitzu bakoitzaren definizioa.

- Hartzaileen mugaketa eta zerbitzu eta prestazio ekonomiko bakoitza eskuratzeko gainerako baldintzak zehaztea.

- Prestazio eta Zerbitzuak eskuratzeari buruzko prozedura xedapenak zehaztea.

1.1.3. Otsailaren 18ko, 3/2005 Legea, haurrak eta nerabeak zaindu eta babestekoa.

Haur eta nerabe guztiek dute gizarteratzeko eskubidea eta Gizarte zerbitzuen sare publikoak eskaintzen dituen baliabideetara jotzeko eskubidea.

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, zerbitzu eta programak sortu eta sustatuko dituzte haurrei arreta emateko familien sostengu gisa.

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, haur eta nerabeen babes sozial eta juridikoa gauzatuko dute, adingabearen interes gorena aintzat hartuta, lehentasuna emanik familia integrazioa ahalbidetuko duten prebentzio ekintzei, eta familian bertan arreta ematea, guraso zein tutoreei orientabide izan al diren familia esku-hartzeko programak eskainiz laguntza eta zaintza betebeharretan zailtasunak antzematen direnean.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek kasua jaso, ikertu, baloratu eta orientatu egin behar dute, beharrezkoa izanik, esku-hartze komunitariora zuzenduz kasua.

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, arrisku egoerei erantzuteko familian esku-hartzeko programak sortu eta sustatuko dituzte, familiei laguntza emanez, baldin eta trebetasun pertsonalen, sozialen edo hezkuntzakoen arloan gabeziek arrisku-egoera sortzen badute edo eragin badezakete.

1.1.4. Abenduaren 12ko, 13/2008 Legea, Familiei Laguntzekoa.

Legearen xedea familien eta kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea da. Helburua familiei babesa, arreta eta laguntza ematea da. Horretarako, Gizarte Zerbitzuen eremuan, administrazio publikoek familiei arreta eta laguntza emateko zerbitzuak garatuko dituzte honako arlo hauetan:

- Familia-orientazioa eta arreta psikosoziala.
- Familia bitartekaritza eta elkartze guneak.
- Etxeko laguntza.
- Menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileei laguntza.
- Ostatu zerbitzua larrialdi egoeretan.
- Familian esku-hartzeko programak arrisku egoeretan.
- Arrisku-egoeretan familian esku hartzeko programak.
- Arrisku sozialeko egoeren prebentzioa, batez ere familian.

1.1.5. 230/2011 DEKRETUA, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duen dekretu-proiektua. (BALORA)

LEA IBARREKO UDAL
MANKOMUNAZGOA

Eleizaldea, 1 - 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia).
Tfnoa. eta Faxa: 94 684 29 82 Web:www.leaibarra.com

Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna baloratzeko tresna onartzen da.

Udal Gizarte Zerbitzuei dagokie babesgabetasunarekiko zaurgarritasun kasuetan esku hartzea; haurraren edo nerabearen beharretara egokitutako arreta, baina babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna dakarten zailtasun pertsonalak, familiakoak edo sozialak daude. Babesgabetasuna etorkizunean eta arrisku arinean ager liteke; zaintzan gabezia arinak dituen arreta.

1.2. Marko antolatzailea

Lea Ibarrako Mankomunitatearen helburua, besteak beste, gizarte-zerbitzuak ematea da, bere erakunde-helburuekin bat etorriz.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, zeinen eginkizuna arrisku- edo mendekotasun-egoeran, desgaitasun-egoeran, baztertuta eta/edo babesgabetasun-egoeran dauden pertsona guztiei arreta ematea da, eta herritar guztien gizarteratzea eta autonomia sustatzea, gizarteratzeko eta gizarte-ongizaterako beste sistema eta eremu batzuekin koordinatuz eta lankidetzan arituz (enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, justizia publikoa).

Oinarrizko gizarte-zerbitzuen ardura da esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala bultzatzeko programa zein baliabideak garatu eta kudeatzea.

Diagnostiko sozial egoki batetik abiatuta, banakako, familiako, taldeko edo izaera komunitarioa duena, banakako arretarako lan-planak burutzen dira, esku-hartze eta arreta egokiak eskatzen dituzten talde-programazioak, esku-hartzeak eta zuzeneko arreta ematea pertsona, familia, talde edo komunitateari, gizarte-laneko tekniken bidez, informazio-, hezkuntza-, laguntza- eta argitze-tekniken bidez; eta funtsean, pertsonen ahalduntzean lagundu.

Behin pertsona edo familiak planteatutako egoera baloratuta oinarrizko gizarte zerbitzuetan, gizarte diagnosi bat burutzen da eta eskubidez dagozkion zerbitzuak eta/edo prestazioak gaitzen dira, eta, hala badagokio, zerbitzu espezializatuetara bideratzen dira.

Azkenik, pertsonak edo familiak planteatutako egoera kontuan hartuta, oinarrizko gizarte-zerbitzuek beste udal-zerbitzu batzuetara edo gizarte-politikaren arloan lan egiten duten beste erakunde publiko batzuetara bideratu ahal izango dituzte herritarrak, hala nola gizarte-ongizateko foru-erakundera, osasunera, hezkuntzara, etxebizitzara etab. eta horiekin lan egiten da deribazio protokoloen bidez, esku-hartze koordinatu bat garatuz.

2. HELBURUA

Kontratu honen xedea Lea Ibarrako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan esku-hartze psikosozialeko zerbitzua garatzea da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek gainbegiratu, koordinatu eta gidalerroak emanda, baita hezitzailearekin taldean lan eginda ere.

Izaera prebentiboa: esku-hartzea prebentzioaren esparruan zentratzen da, egokitzapen eza eragiten duten mekanismoak hautematea, pobretze eta isolamendu soziala, eta jarduera psikosoziala prozesu horretan eremu eta egoera hobetzea ahalbidetuz.

Izaera globalizatzailea: esku-hartzea orokortasunetik ulertzen da, eta gizabanakoa hartzen da kontuan garapen pertsonal, psikologiko, sexual, harremanen, prestakuntzaren eta familiaren alderdi guztietan.

LEA IBARREKO UDAL
MANKOMUNAZGOA

Eleizaldea, 1 - 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia).
Tfnoa. eta Faxa: 94 684 29 82 Web:www.leaibarra.com

Izaera psikosoziala: tresna psikosoziala da, eta ez soilik laguntzakoa.

Lurralde-izaera: Lea Ibarreko Amankomunazgoaren eremu geografikoan, komunitatetik hurbilago egon dadin. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ezaugarrien, premien eta eskaeren arabera, modu desberdinak har daitezen ahalbidetzea, komunitatean egon daitezkeen premien arabera.

3. JARDUERA EREMUA ETA BIZTANLERIA

Esku-hartzea Lea Ibarrako Mankomunazgoa osatzen duten udalerrietan garatuko da: Aulesti, Amoroto, Gizaburuaga, Mendexa eta Munitibarren.

Zerbitzuaren erabiltzaile diren pertsonen ezaugarri, profil eta proposatutako banakako esku-hartze programaren arabera, esku-hartze eta arreta emateko eremua hasiera batean Lea Ibarrako Mankomunitatea izango da, Gizaburuagan kokatuta dagoena alegia. Hala ere, posible da batzuetan zerbitzua Mankomunazgoko beste udalerri batzuetan ematea, eta, salbuespen gisa, kasuak hala eskatzen duenean, pertsona/familiaren ingurunean (etxean, adibidez), beste sistema batzuekin elkarreraginen duten inguruneak (hezkuntza, osasuna) eta beraz, eragina dutena erabiltzaileen eguneroko bizitzan eta baita garapen pertsonal eta sozialean.

Arreta modalitateari dagokionez, banakakoa/familiakoa, taldekoa eta komunitarioa izan daiteke.

Zerbitzuaren profesional esleipendunak esku-hartze psikosoziala gehienez ere hamabost eguneko epean hasiko dela bermatuko du. Halaber, oinarrizko gizarte-zerbitzuek ezarritako jarduera-prozedura eta protokoloak errespetatu beharko ditu.

Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoak, honako hauek hartzen ditu hartzailetzat, adin-mugarik gabe:

- Bazterkeria egoeran dauden pertsonak
- Mendetasun egoeran dauden pertsonak
- Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak
- Babesgabetasun arrisku arin edo ertainean dauden adingabeak

Zerbitzuan sartzeko baldintza da hezkuntza laguntza eta/edo laguntza Psikosoziala behar izatea honako hauetan: familia bizikidetza hobetzeko, kideen arretarako eta zaintzarako trebetasunak hobetu eta/edo modu autonomoan jardutea erraztu zein ahalbidetzeko, besteak beste.

Gainera, zerbitzua emateko, beharrezkoa izango da mankomunatutako udalerri batean erroldatuta egotea, esku-hartzearen helburua adingabeei eragiten dieten arrisku arin zein ertaineko edo babesgabetasuneko egoerak artatzean denean izan ezik. Eskaintzen den zerbitzua, prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko dekretuak ezarritako esparruan, honako biztanle-profil hauetara zuzentzen da:

- Seme-alaba adingabeak dituzten familiak, babesgabetasun arineko eta ertaineko arrisku-baloraziorik ez badute eta aldaketarako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen eta/edo adingabeari berariazko laguntzaren onuradun izan daitezkeela uste badute, gurasoek egindako lanaren osagarri gisa. Haurren eta nerabeen behar bereziekin lotutako diagnostikoak eta/edo tratamenduak dauden kasuetan, guraso-trebetasunetan dauden gabeziak edo disfuntzioak landuko dira, eta ez desgaitasun propioaren zailtasunak,

LEA IBARREKO UDAL
MANKOMUNAZGOA

Eleizaldea, 1 - 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia).
Tfnoa. eta Faxa: 94 684 29 82 Web:www.leaibarra.com

osasun mentaleko nahasmenduak edo beste batzuk, horiek esparru espezializatuari dagozkio eta.

- Adingabeak ardurapean dituzten familiak, beren trebetasun pertsonaletan, guraso-gaitasunetan eta gizarte-gaitasunetan mugak dituztenak beren kabuz moldatzeko, gizarteratzeko eta familia- eta komunitate-ingurunean bizikidetza egokia izateko.

4. FUNTZIO ETA ZEREGINAK

Psikologoak honako funtzio eta zeregin hauek betetzen dituen profesionala izango da:

- Arreta psikosoziala, banakakoa, familiakoa, taldekoa eta esku-hartzeak; adingabeei, bazterkeria eta/edo menpekotasun arriskuan dauden pertsonei, zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako familiak.
- Balorazio, diagnostiko, kasuen pronostiko zein orientabideak eta haurren babesgabetasun arrisku egoeren esku-hartze hipotesiak egin.
- Balorazio eta diagnostikoen txosten psikologikoak egitea.
- Teknikariekin koordinatzea: aholkularitza, orientazioa, laguntza eta kasuen ikuskapena Lea Ibarrako Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalei.

Ezaugarriak:

Kasuen diagnostiko psikosoziala eta pronostikoa egiteko, kasuari esleitutako psikologoak banakako eta familiako proba zein elkarrizketak egingo ditu.

Esku-hartze psikosoziala esku-hartze sozioedukatiboko prozesu bati lotuta egongo da.

Proba zein elkarrizketak, ahal den heinean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen lokaletan egingo dira.

Familiaren bizilekua funtsezko espazioa da bizikidetzarako eta familia harremanetarako, baita behaketarako eta esku-hartzeko ere familia egiturari, etxeko antolamenduari eta bizikidetzari dagokionez. Hori dela eta, kasuaren arduradun den gizarte langileak ezinbestekotzat jotzen badu etxebizitzan edo familia inguruan familia-harremanak behatu eta baloratzea, esleitutako psikologoa etxebizitza, eskola... joango da familia egoera elkarrizketatu, behatu eta baloratzeko.

Kasuari esleitutako psikologoak koordinazio eta talde-lan bat egingo du gizarte langile eta gizarte hezitzailearekin, egoerari buruzko informazioa kontrastatu eta diagnostikoa osatzeko.

5. AURKEZTU BEHARREKO INFORMEAK

Babesgabetasun-arriskuan dauden adingabeen kasuetan, esku-hartzearen txostenak Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta babesgabetasun-egoerak baloratzeko tresnan (BALORA) oinarrituko dira.

Bazterkeria- eta mendekotasun-arriskuan dauden pertsonen kasuetan esku hartzeko txostenak 353/2013 Dekretuko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikorako tresnan oinarrituko dira.

Enpresa edo profesional esleipendunak epe hauetan aurkeztuko ditu txostenak:

- Esku-hartzea hasi eta 6 hilabetera, familia-egoeraren balorazio-txosten bat eta Esku-hartze Plana aurkeztuko dira.

LEA IBARREKO UDAL
MANKOMUNAZGOA

Eleizaldea, 1 - 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia).
Tfnoa. eta Faxa: 94 684 29 82 Web:www.leaibarra.com

Esku hartzeko plana dokumentu idatzia da, eta honako hauek jasotzen ditu:

- Adingabearen edo adingabeen egoera pertsonala, familiakoa eta soziala balioestea, gertatzen ari den tratu txar motaren (halakorik badago), hura bultzatzen ari diren faktoreen eta larritasun-maila zehazteko.
- Bazterkeria- eta mendekotasun-arriskuan dagoen pertsonaren eta zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeen egoera pertsonala, familiakoa eta soziala baloratzea, arrisku-egoera mota (halakorik badago), hura bultzatzen duten faktoreak eta larritasun-maila definitzera iristeko.
- Pertsonaren beharrak asetzeko behar diren baliabideei buruzko orientazioa.
- Esku-hartzeko prozesuan landu beharreko helburuak zehaztea.
- 6 hilean behin ebaluazio bat aurkeztuko da, Esku Hartze Planean planteatutako helburuen arabera.
- Esku-hartzearen amaierako txostena, txostena arrazoituz.

6. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

6.1. Profil profesionala

Enpresa esleipendunak behar besteko kualifikazioa duten langileak izan beharko ditu bere plantillan, lanak egiteko, edo lantalde teknikoa kontratatzeko konpromisoa hartu beharko du, eskatutako titulazioari eta euskara-ezagutzari dagokienez.

Arreta psikosozialeko programara atxikitzen den profesionalak egiaztatu beharko du **psikologiako lizentziatura edo gradua.** Horrez gain, zerbitzua zuzenean ematen duen pertsonak **Psikologia Elkargoko kide** izan beharko du.

Gainera, aurkezten diren profesionalek **euskararen ezagutza-maila C1 erreferentzia-mailaren parekoa** dela egiaztatu beharko dute eta baita **sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren zigor-aurrekarien ziurtagiri negatiboa ere**, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatu zuen Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluarekin bat etorriz.

Enpresa esleipendunak, kontratua hasi aurretik, kontratua gauzatzeari atxikitako profesionalen titulazioa, lanbide-esperientzia eta hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko ditu, originalak edo kopia konpultsatuak.

Ordezkapenak egiten badira, informazio hori eguneratu egin beharko da.

6.2. Taldearen egonkortasuna

Kontratua gauzatzeko epean zerbitzua emateari atxikitako profesionalaren egonkortasuna bermatu beharko du enpresa esleipendunak.

6.3. Urteko egutegia eta ordutegia

Zerbitzua astean zazpi orduz emango da, Lea Ibarrako Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin adostuta.

Lan-egutegia egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko jaiegunen lan-egutegi ofiziala eta tokiko jaiegunak hartuko dira kontuan.

Esleipenduna arduratuko da zerbitzua lan-egutegiaren eta -ordutegiaren arabera emateaz, eta ez betetzeak dakartzan erantzukizunak bere gain hartuko ditu.

6.4. Langileen prestakuntza

LEA IBARREKO UDAL
MANKOMUNAZGOA

Eleizaldea, 1 - 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia).
Tfnoa. eta Faxa: 94 684 29 82 Web:www.leaibarra.com

Esleipendunak zerbitzua emateko beharrezkoak diren prestakuntza- eta eguneratze-ikastaroak eman beharko dizkio zerbitzua ematen duten langileari, baina horrek ez du eraginik izango kontratatutako prestazioan.

6.5. Ordezkapenak

Esleipendunak uneoro mantendu beharko du zerbitzua emateko atxikitzen den taldea, ezarritako egutegiarekin eta ordutegiarekin, eta, ondorioz, beharrezko ordezkapenak egin beharko ditu gaixotasunagatik, baimenengatik, lizentziengatik edo antzekoengatik, eta agiri honetan eskatzen diren titulazioari, euskarari eta esperientziari buruzko baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du. Horrez gain, Lea Ibarrako Amankomunazgoari jakinarazi beharko dio ahalik eta lasterren gorabehera oro.

6.6. Kontratistaren betebeharrak

Kontratua gauzatzera atxikitako langileak enpresa esleipendunaren mende egongo dira soil-soilik, eta enpresa horrek eskubide eta betebehar guztiak izango ditu, eta lan-arloan, gizarte-segurantzan, laneko segurtasun eta osasunean eta arriskuen prebentzioan indarrean dagoen araudia bete beharko du, bai eta langile horietatik erator daitezkeen tributuak edo zerga-betebeharrak ere. Amankomunazgoko ez du erantzukizunik izango kontratistaren eta haren langileen arteko harremanei dagokienez.

Esku-hartze psikosozialeko programara atxikitako langileei zerbitzuak ondo funtziona dezan beharrezkoak diren bitartekoak, prestakuntza eta aholkularitza emango dizkie.

Lea Ibarrako Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuei zerbitzuaren urteko memoria eta garapenaren ebaluazioa igortzea.

Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea zerbitzua behar bezala emateari eragiten dion edozein gorabehera.

Kontratatutako zerbitzuaren kostuaren hileko faktura aurkeztea.

Langileen gastuak behar bezala justifikatu beharko dira, lan-arloko legea betez.

Kontratuaren amaieran, artxibo eta datu guztiak Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuetara pasatuko dira, prozesua eta protokoloa behar bezala betetzeko, Datuak Babesteko Legearen eta indarreko araudiaren arabera.

6.7. Baliabide materialak

Lea Ibarrako Amankomunazgoko zerbitzuaren eta enpresa esleipendunaren eskura gune bat eta altzariak jarriko ditu, zerbitzua bere osotasunean garatzeko.

Enpresak honako hauek eduki beharko ditu:

- Zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzen duten ekipo eta programa informatikoak.
- Komunikazio- eta kontrol-baliabide teknikoak, atxikitako profesionalaren, Gizarte Zerbitzuen profesionalen eta esku hartzen ari den pertsonen zein familien arteko komunikazioa bermatzeko.
- Esku-hartze psikosozialak eta emandako arreta behar bezala garatzeko beharrezkoa den material didaktikoa, pedagogikoa eta ludikoa.